



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko irailaren 21a

113. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baitu beharrezkoa eta komenigarria dela memoria historikoa erabat berreskuratzea, eta bere adostasun eta aldektasuna adierazten baititu Francisco Franco diktadorearen gorpuzkiak desobiratzeko erabakiari dagokionez. Eledunen Batzarrak onetsia (3. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak agertzen baitu errefusatu egiten duela datorren bosturtekorako defentsa-aurrekontuaren gorakada neurrigabea. Eledunen Batzarrak onetsia (4. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bipil errefusatzen baitu Antsoainen indarkeria matxistaren aurkako sinbolo bat erre izana. Eledunen Batzarrak onetsia (4. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak agertzen baitu aldeztu egiten duela Diputatuen Kongresuan Errege emerituari buruzko grabazioen gaineko ikerketa-batzorde bat eratzeko eskaria. Eledunen Batzarrak onetsia (5. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, Findus janari izoztuen enpresaren bulegoak Madrilen jartzeari buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, astean ingelesez ematen diren eskolen murrizketa ezarri zen ikastetxeetako eskola kontseiluen aktak ez igortzeari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, Urrozko zabortegia zigilatzeke prozesuan Nafarroako Gobernua egiten ari den jarduketari buruzkoa. Rubén Velasco Fraile jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, 2015etik 2018ra bitarteko Gobernu Ekintzari buruzko Memoriari buruzkoa. Mónica Doménech Linde andreak egin du (8. or.).
- Galdera, jakiteko ea Garapen Ekonomikorako kontseilariak Findus-eko zuzendaritzarekin biltzeko asmorik ote duen, foru erkidegotik deslokalizatzea ekiditeko. Carlos García Adanero jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, familia-harrerari buruzkoa. Mónica Doménech Linde andreak egin du (9. or.).

- Galdera, Nafarroako 2019ko Aurrekontu Orokorren proiekturako gehieneko gastua ezartzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, Europako Banku Zentralak zor publikoa erosteari uzteak Nafarroaren nahiz Estatuaren zorrean eta Nafarroako Estatuari egin beharreko ekarpenaren zehaztapenean izan lezakeen eraginari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, nahitaezko soldadutzaren aitzineko intsumisoen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (11. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Gobernuaren erabakia, 2018ko irailaren 12koa, zeinaren bidez onesten baita 2019rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretako gastu ez-finantzariako muga (12. or.).
- Emakumeen kalitatezko enplegua bultzatzera eta laneko desberdintasunak eragindako arraila murriztera bideratutako proposamenak eginen dituen txosten bat egiteko ponentzia. Barne-funtzionamendurako arauak (14. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baitu beharrezkoa eta komenigarria dela memoria historikoa erabat berreskuratzea, eta bere adostasun eta aldekotasuna adierazten baititu Francisco Franco diktadorearen gorpuzkiak desobiratzeko erabakiari dagokionez.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko irailaren 17an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du hainbat aldiz adierazitako jarrera: beharrezkoa eta komenigarria da memoria historikoaren erabateko berreskuratzeari ekitea; zehazki, diktadura eta errepresio frankistaren garaian dagokion guztia, halako moduan non ase egin ahal izanzen baitira garai hartako biktima guztiei eta oro har gizarteari zor zaizkien egia, justizia eta erreparazioa.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du diktadura frankistaren figura eta protagonista nagusi izandako Francisco Franco diktadorearen gorpuzkiak berrogei urte luzez Erorien Haranean egon izana, horrek esan nahi duen guztiarekin, laidoa eta iraina dela haren biktima guztientzat, eta memoria historikoa berreskuratzearekin bateraezina.

3. Nafarroako Parlamentuak bere adostasun eta aldekotasuna adierazten ditu Diputatuen Kongresuak Francisco Franco diktadorearen gorpuzkiak desobiratzeko hartutako erabakiari dagokionez, eta Espainiako Gobernuari dei egiten dio erabakia alait lasterren gauzatu dezan, desobiratzeko horrek daukan esanahi guztia emanaz eta nabarmenduz.

4. Nafarroako Parlamentuak jotzen du beharrezkoa dela Espainiako Gobernuak Memoria Historikoari buruzko 52/2007 Legea alda dezan, II. Errepublikaren legedi zilegiaren defendatzaileen aurkako epai frankisten baliogabetzea onesteko eta Erorien Haranaren desakralizazioari eta esanahiberritzeari ekiteko”.

Iruñean, 2018ko irailaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak agertzen baitu errefusatu egiten duela datorren bosturtekorako defentsa-aurrekontuaren gorakada neurrigabea.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko irailaren 17an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. “Nafarroako Parlamentuak agertzen du errefusatu egiten duela datorren bosturtekorako aurreikusitako defentsa-aurrekontuaren gorakada neurrigabea, Espainiako Gobernuak berretsia, zeinaren helburua ez baita hainbeste Europaren defentsa amankomuna hobetzea, nola baita armagintzako industriaren inguruan sorturiko negozioa eta irabaziak areagotzea. Hori dela-eta, Parlamentuak nahi du Estatuaren 2019ko Aurrekontu Orokorretan ez dadin igoera hori jaso.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du zeharo konprometituta dagoela bakearen kultura eraikitzen laguntzeko, eta berriro ere salatzen du

Nafarroako lurraldeaz Bardeako tiro poligono militarrean egindako erabilera, han armak probatzen baitira, gero esportatuko direnak gatazkan dauden herrialdeetara.

3. Nafarroako Parlamentuak deitoratu egiten du Kongresuak Espainiako Gobernuari 2017ko martxoaren 9an emandako baimena –PPk, Cs-ek eta PSOEk aldeko botoa eman zuten–, Espainiako Erresumaren eta Saudi Arabiaren artean hitzarmen bat sina zedin informazio sailkatua elkarri babesteko; izan ere, horren bidez areagotu egiten da opakutasuna eta eragotzi egiten da bi herrialdeen arteko merkataritza-eragiketen kontrol publikoa”.

Iruñean, 2018ko irailaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bipil errefusatu baitu Antsoainen indarkeria matxistaren aurkako sinbolo bat erre izana.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko irailaren 17an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. 1. Nafarroako Parlamentuak bipil errefusatu du ekintza hau, uste baitu emakume guztien eskubideekiko errekonozimenduaren aldeko borrokaren aurkako eraso onartezina dela.

2. Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa berresten du borroka feministarekiko eta gure erkidegoa eraso matxistarik gabeko lurralde bihurtzen laguntzeko politika aktiboak sustatzearekiko”.

Iruñean, 2018ko irailaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak agertzen baitu aldeztu egiten duela Diputatuen Kongresuan Errege emerituari buruzko grabazioen gaineko ikerketa-batzorde bat eratzeko eskaria.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko irailaren 17an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak agertzen du aldeztu egiten duela Diputatuen Kongresuan erregistratutako eskaria, argitaraturiko grabazioei buruzko ikerketa-batzorde bat eratzekoa”.

Iruñean, 2018ko irailaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Findus janari izoztuen enpresaren bulegoak Madrilen jartzeari buruzkoa.

GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko irailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, Findus janari izoztuen enpresaren bulegoak Madrilen jartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko irailaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Guzmán Garmendia jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Garpren Ekonomikorako kontseilari eta Nafarroako Gobernuako lehendakariorde denari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Findus janari izoztuen enpresak, zeinak Taxoaren baitauka bere egoitza, bere langileei jakinarazi die Madrileran eramanen dituela laster bere bulegoak; ondorioz, kolokan utzi ditu gutxienez ere 55 nafar langileren lanpostuak, bai eta konpainia horrek bere lana egiteko orain arte zerabiltzan enpresetakoak ere.

Nafarroako Gobernuak ba al du konpainia horren erabakia atzera botatzen saiatzeko ezer egiteko asmorik?

Iruñean, 2018ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

Galdera, astean ingelesez ematen diren eskolen murrizketa ezarri zen ikastetxeetako eskola kontseiluen aktak ez igortzeari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko irailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, astean ingelesez ematen diren eskolen murrizketa ezarri zen ikastetxeetako eskola kontseiluen aktak ez igortzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2018ko irailaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariak Hezkuntza Batzordean ahoz erantzun dezan:

– Parlamentuaren Zerbitzu Juridikoen txosten batek dioenez, Hezkuntzako kontseilariak ez du araudia betetzen, ez baitu igortzen ingelesez astean ematen diren eskolen murrizketa ezarri zen ikastetxeetako eskola kontseiluen aktarik. Zergatik arau-hauste hori?

Corellan, 2018ko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Urrozko zaborteia zigilatze prozesuan Nafarroako Gobernu egiten ari den jarduketari buruzkoa.

RUBÉN VELASCO FRAILE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko irailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Rubén Velasco Fraile jaunak aurkeztutako galdera, Urrozko zaborteia zigilatze prozesuan Nafarroako Gobernu egiten ari den jarduketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko irailaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Rubén Velasco Fraile jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer jarduketa, eta zer txosten tekniko edo proiektutan oinarrituta, ari da egiten Urrozko zaborteia zigilatze prozesuan?

Iruñean, 2018ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Rubén Velasco Fraile

Galdera, 2015etik 2018ra bitarteko Gobernu Ekintzari buruzko Memoria-ri buruzkoa.

MÓNICA DOMÉNECH LINDE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko irailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mónica Doménech Linde andreak aurkeztutako galdera, 2015etik 2018ra bitarteko Gobernu Ekintzari buruzko Memoriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko irailaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Mónica Doménech Linde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

– Nafarroako Gobernuak argitaraturiko 2015etik 2018ra bitarteko Gobernu Ekintzari buruzko Memoriaren edizio-prezioa.

– Diseinua, edizioa, inprimaketa eta bidalketa zer kontusaili egotzi zaizkio?

– 2015etik 2018ra bitarteko Gobernu Ekintzari buruzko Elkarrekin bizi, eraiki, aurrera egin Memoriaren jasotzaileen zerrenda eta banaketa-gastuak.

Iruñean, 2018ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Mónica Doménech Linde

Galdera, jakiteko ea Garapen Ekonomikorako kontseilariak Findus-eko zuzendaritzarekin biltzeko asmorik ote duen, foru erkidegotik deslokalizatzea ekiditeko.

CARLOS GARCÍA ADANERO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko irailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos García Adanero jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Garapen Ekonomikorako kontseilariak Findus-eko zuzendaritzarekin biltzeko asmorik ote duen, foru erkidegotik deslokalizatzea ekiditeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko irailaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos García Adanero jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Garapen Ekonomikorako lehendakariorde Manu Ayerdi jaunak idatziz erantzun dezan:

– Kontseilariak ba al du Findus-eko zuzendaritzarekin biltzeko asmorik, foru erkidegotik deslokalizatzea ekiditeko?

Iruñean, 2018ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Carlos García Adanero

Galdera, familia-harrerari buruzkoa.

MÓNICA DOMÉNECH LINDE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko irailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mónica Doménech Linde andreak aurkeztutako galdera, familia-harrerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko irailaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Mónica Doménech Linde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

– Nafarroako Gobernuak zenbat diru gehiago bideratu du familia-harrera sustatzeko kanpainetarako?

– Nafarroako Gobernuaren azken harrera-kanpainan: Zenbat pertsonak eskatu du familia-harrerari buruzko informazioa? Zenbat pertsonak eman du izena harrera-familia gisa egokitasuna gainditzeko?

– Honako informazio-eskaera hauei buruzko datuak jaso nahi ditut: urgentziarako harrera, aldi baterako harrera eta harrera iraunkorra eta harrera profesionala edo espezializatua. Informazio-eskaera horrek zer jarraipen edo izapide darama harrerako familia izateko?

– 2014an egindako kanpainatik 2018ko oraingo kanpaina hau bitarte Nafarroan harrerako familiek izandako bilakaera, harrera motak zehaztuta (urgentziarako, aldi baterakoa, iraunkorra, espezializatua).

– Departamentuko adingabeen arloan harrera-familiekiko arretara bideratutako langileak. Langileen bilakaera 2015etik hona.

Iruñean, 2018ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Mónica Doménech Linde

Galdera, Nafarroako 2019ko Aurrekontu Orokorren proiekturako gehieneko gastua ezartzeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko irailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako 2019ko Aurrekontu Orokorren proiekturako gehieneko gastua ezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko irailaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH-Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, hark idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak 2019rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko proiekturako gehie-

neko gastua ezartzeari dagokionez, parlamentari naizen aldetik honako hau jakin nahi dut:

– Zer proiektzio ekonomikotan oinarritzen da? Aurreikuspen horiek justifikatzen dituzten txostenak jaso nahi ditut.

Iruñean, 2018ko irailaren 13an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Europako Banku Zentralak zor publikoa erosteari uzteak Nafarroaren nahiz Estatuaren zorrean eta Nafarroako Estatuari egin beharreko ekarpenaren zehaztapenean izan lezakeen eraginari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko irailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Europako Banku Zentralak zor publikoa erosteari uzteak Nafarroaren nahiz Estatuaren zorrean eta Nafarroako Estatuari egin beharreko ekarpenaren zehaztapenean izan lezakeen eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko irailaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH-Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, hark idatziz erantzun dezan:

Europako Banku Zentralak Europar Batasuneko kide diren estatuaren zor publikoa erosteari uztearen iragarpenari dagokionez, parlamentari naizen aldetik honako hau jakin nahi dut:

– Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen darabil zor publikoa erosteari uzteak Nafarroaren eta Estatuaren zorretan eta Nafarroako Estatuari egin beharreko ekarpenaren zehaztapenean izan lezakeen eraginari buruz?

Iruñean, 2018ko irailaren 13an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, nahitaezko soldadutzaren aitzineko intsumisoen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko irailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, nahitaezko soldadutzaren aitzineko intsumisoen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko irailaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH-Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, hark idatziz erantzun dezan:

Nahitaezko soldadutzarekin intsumiso izateagatik espetxe eta inhabilitazio zigorrak pairatu zituzten pertsonen errekonozimenduari eta erreparazioari dagokienez, parlamentari naizen aldetik honako hau jakin nahi dut:

– Aurreikusi diren jarduketan egutegi xehaketa.

Iruñean, 2018ko irailaren 13an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Gobernuaren erabakia, 2018ko irailaren 12koa, zeinaren bidez onesten baita 2019rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretako gastu ez-finantzariorako muga.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko irailaren 17an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Gobernuak erabaki bat igorri dio Legebiltzarrari, 2018ko irailaren 12koa, 2019rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretako gastu ez-finantzariorako muga onesten duena.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37. artikuluekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Jasotzat ematea Nafarroako Gobernuaren erabakia, 2018ko irailaren 12koa, zeinaren bidez onesten baita 2019rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretako gastu ez-finantzariorako muga.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko irailaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Gobernuaren erabakia, 2018ko irailaren 12koa, zeinaren bidez onesten baita 2019rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretako gastu ez-finantzariorako muga

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa gidatzen duten printzipioen oinarria da egonkortasun hori politika ekonomikoaren gakoetako bat dela, zeinak Espainiako ekonomikarekiko konfiantza sendotzen lagunduko baitu, finantzaketa baldintza hobeetan lortzea erraztuko baitu eta, horrekin, hazkunde ekonomikoaren eta enplegu-sorkuntzaren bidea berreskuratzea bideratuko baitu.

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoren 30. artikulua ezartzen du Estatuak, autonomia-erkidegoek eta toki-korporazioek, dagozkien esparruetan, gastu ez-finantzariorako gehieneko muga bat onetsiko dutela, zeina koherentea izanen baita aurrekontu-egonkortasunaren helburuarekin eta gastu-arauarekin, eta muga horrek haien aurrekontuetako baliabide-erabilpenaren gehienekoa markatuko duela. Gastu ez-finantzariorako mugak kanpo utziko ditu autonomia-erkidegoen eta toki-korporazioen finantzaketa-sistemei lotuta dauden transferentziak.

Halaber, Hitzarmen Ekonomikoaren bidez zehaztuko da Nafarroako Foru Komunitateak zenbateko ekarpena egin behar duen Estatuaren zama orokorrei eusteko. Transferentzia hori, Estatu Administrazio Orokorreko Kontu-hartzailetzaren arabera, jo behar da gastu-mugatik kanpo utzi beharreko finantzaketa-sistema baten gisara.

Lege horretan 2019rako aurreikusitako gehieneko gastu-muga zehazteko, Nafarroako Gobernuak Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak zenbatetsi egin ditu aldi horretako diru-sarrera ez-finantzarioak aurreikusteko beharrezkoak diren magnitude nagusiak.

Bestetik, Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-politikak bermatu beharra dauka defizit-helburua betetzen dela, Kontabilitate Nazionaleko terminoetan. Ezarri da 2019rako defizit-helburua aldi horretarako aurreikusitako BPG erregionalaren % 0,1 izanen dela.

Azkenik, kontabilitate nazionaleko doikuntzak zenbatetsi dira defizit-helburua betetzeari lotutako gastu ez-finantzariorako ahalmena mugatze aldera, horretarako jarraituz Europar Batasuneko Kontu Nazional eta Erregionalen Sistema Europarraren gaineko Erregelamenduari (KSE 2010).

Testuinguru horretan, 2019rako aurrekontuko zifrak honako hauek dira:

2019ko GASTU MUGA

Diru-sarrera ez-finantzarioak	3.973.272.404 €
Gehieneko defizita	21.576.303 €
Kontabilitate Nazionaleko doikuntzak	23.192.110 €
Estatuarentzako ekarpena	-566.154.669 €
Toki Ogasunen Funtza	-229.292.786 €
GASTU EZ-FINANTZARORAKO MUGA	3.222.593.362 €

Horren indarrez, Nafarroako Gobernuak, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak proposatuta,

ERABAKI DU

Lehena. 2019rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretako gastu ez-finantzariorako muga onestea: 3.222.593.362 eurokoa izanen dela ezarri da.

Bigarrena. Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariari ahalmena ematea departamentu bakoitzaren aurrekontuak egiteko gidalerro ekonomiko eta teknikoak zehazteko, bai eta horretarako behar diren jarraibide guztiak emateko ere.

Hirugarrena. Erabaki hau helaraztea Nafarroako Gobernuaren departamentuetako idazkaritza nagusi teknikoei, Nafarroako Unibertsitate Publikoari, erakunde autonomoetako zuzendari-kudeatzaileei, sozietate publikoetako zuzendari-kudeatzaileei, fundazio publikoetako zuzendari-kudeatzaileei, Nafarroako Parlamentuari, Nafarroako Kontseiluari eta Aurrekontuen eta Finantza Politikaren Zerbitzuari.

Iruñean, 2018ko irailaren 12an.

Nafarroako Gobernuko kontseilari idazkaria:
María José Beaumont Aristu

Emakumeen kalitatezko enplegua bultzatzera eta laneko desberdintasunak eragindako arraila murriztera bideratutako proposamenak eginen dituen txosten bat egiteko ponentzia.

BARNE-FUNTZIONAMENDURAKO ARAUAK

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen Emakumeen kalitatezko enplegua bultzatzera eta laneko desberdintasunak eragindako arraila murriztera bideratutako proposamenak eginen dituen txosten bat egiteko ponentziaren barne-funtzionamendurako arauak, zeinak ponentziak berak onetsi baitzituen, 2018ko irailaren 19an eginitako bilkuran. Hona haien testua:

“**Lehena.-** Ponentziak xedetzat du txosten bat egitea, emakumeen kalitatezko enplegua bultzatzera eta laneko desberdintasunak eragindako arraila murriztera bideratutako proposamenak eginen dituen.

Behin txostena eginda, Legebiltzarreko Mahaiari igorriko zaio, aurkez litezkeen boto partikularrekin batera; eta Mahaiak Batzordeko kideei bidaliko die, eztabaidatu eta bozkatzeko.

Bigarrena.- Hona ponentzia osatuko duten foru parlamentarien zerrenda:

UPN talde parlamentarioa
Maribel García Malo andrea
Ordezkoa: Ana San Martín Aniz andrea

Geroa Bai talde parlamentarioa
Virginia Alemán Arrastio andrea
Ordezkoa: Rafael Eraso Salazar jauna

EH-Bildu Nafarroa talde parlamentarioa
Aranzazu Izurdiaga Osinaga andrea
Ordezkoa: Bakartxo Ruiz Jaso andrea

Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai talde parlamentarioa
María Teresa Sáez Barrao andrea
Ordezkoa: Carlos Couso Chamarro jauna

PSN talde parlamentarioa
Nuria Medina Santos andrea
Ordezkoa: Ainhoa Unzu Garate andrea

PPN foru parlamentarien elkarte
Ana María Beltrán Villalba andrea
Ordezkoa: Javier García Jiménez jauna

I-E foru parlamentarien elkarte
José Miguel Nuin Moreno jauna
Ordezkoa: María Luisa De Simón Caballero andrea

Hirugarrena.- Ponentziak lehendakaria hautatu du, eta, kasua bada, ponentziako beste kide batek ordeztu ahalko du hura. Ponentziako idazkari-lanetan jardunen da ponentziari laguntzen dion legelaria, edo haren ordezkoa.

Laugarrena.- Ponentziak boto ponderatuaren sistemaren bidez hartuko ditu erabaki guztiak. Horretarako, ponentziako eledun-kide bakoitzak bere talde parlamentarioak edo foru parlamentarien elkarteak zenbat kide dituen, horrenbeste boto edukiko ditu ponentzian.

Bosgarrena.- Ponentziak laguntza eta lankidetzat eskatu ahalko dio Nafarroako Gobernari, eta, Legebiltzarreko Lehendakariaren bidez, kargu eta funtzionario eskudunak ponentziara etor daitezkeen eskatu ahalko du, edo beharrezkoak diren txostenak egin daitezkeen. Orobat eskatu ahalko du gaian aditu diren beste batzuk ere etor daitezkeen.

Seigarrena.- Ponentziako kideen gehiengoak hala erabakitzen badu, ponentzian eginen diren agerraldiak hedabideei irekiak eta ikus-entzunezko bitartekoak erabiliz erretransmitituak izanen dira. Pertsona edo entitate pribatuen kasuan, galdetu beharko zaie ea onartzen duten agerraldia egitea, eta haien mintzaldia publikoa egitea ere. Bilera hauek ponentziako lehendakariaren zuzendaritzapean eginen dira. Hark, bilera-eskatzaillearen mintzaldiaren ondoren, agerraldia egin behar duenari emanen dio hitza, eskaturiko gaiari buruzko informazioa azal dezan, gehienez ere hogeita hamar minutuz. Ondoren, ponentziako kideek izanen dute hitza, galderak egin edo haien jarrera azaltzeko, gehienez ere hamar minutuz. Bilera bukatuko da agerraldira etorritakoaren erantzunarekin, zeina hamar minutukoa izanen baita gehienez. Parte-hartzaileraren batek hala eskaturik, lehendakariak galdera edo oharretarako beste txanda bat ireki ahalko du. Horiek egiteko bost minutu edukiko dituzte.

Zazpigarrena.- Ponentziak lanerako plana ezarriko du, non bere lanak behar bezala egiteko beharrezkotzat jotzen dituen agerraldi eta jarduerak finkatuko dituen. Plan horren berri emanen zaio Legebiltzarreko Mahaiari.

Zortzigarrena.- Ponentziak agindu zaion lana bukatu arte eginen du lan, eta lan hori ponentzia eratu eta sei hilabeteko epean bukatu beharko du.

Bederatzigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea”.

Iruñean, 2018ko irailaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza
